

# INDARKERIA MATXISTA

## BALIABIDEEN GIDA



Hernaniko  
Udala

EUSKARA - Castellano - English - Urdu اردو - Arabic عربي - Français

# AURKIBIDEA

1. Zer da indarkeria matxista? .....	3
2. Zein dira baliabideak eta zerbitzuak? Hernanin.....	4
3. Zein dira baliabideak eta zerbitzuak? Hernanitik kanpo.....	6
4. Salaketa jartzeko nora jo? .....	8
5. Nola jokatu sexu-eraso baten aurrean? .....	9
6. Nola lagundu indarkeria bizitzen ari den emakume bati? .....	10

## GOGORATU!

Laguntza jasotzeko, ez da beharrezkoa salaketa jartzea.

Emakume guztiek dute arreta jasotzeko eskubidea, edozein delarik ere euren jatorria eta egoera administratiboa.



[hernani.eus/eu/indarkeria-matxista](https://hernani.eus/eu/indarkeria-matxista) EUSKARAZ

# 1. ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeria da, egiturazko desberdintasuna mantentzeko erabiltzen dena. Indarkeria horren helburua da gizon eta emakumeen arteko botere-harreman hierarkikoak ezarri eta mantentzea, emakumeak diskriminazio eta menpekotasun egoeran kokatuz.

Forma ezberdinak hartu ditzake: indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa (isilaraztea, gutxiestea, kontrolatzea...) eta ekonomikoa (baliabide ekonomikoen gaineko autonomia mugatzea, dirua kontrolatzea...).

Indarkeria matxista da, baita ere, emakume eta gizon izateari buruz ditugun tradiziozko ideiak apurtzen dituzten gorputzei egiten zaien edozein indarkeria-mota: alegia, pertsona intersexualek, transek, gayek eta lesbianek jasandakoa. Kasu horretan ere indarkeriaren helburua da ezarritako ordena indarraren eta indarkeriaren bidez mantentzea.

# 2. ZEIN DIRA BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK?

HERNANIN



HERNANIKO  
ERTZAIN ETXEA




KULTURARTEKO  
PLAZA FEMINISTA

HERNANIKO  
UDALZAINGOA

HERNANIKO  
OSASUN ZENTROA


HERNANIKO  
ZERBITZU SOZIALAK

## KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTA Hernaniko Udala

-  943 337 017
-  kulturartekoplazafeminista@hernani.eus
-  Florida auzoa, 28

### **Harrera eta arreta**





Koordinatzaileekin egoteko aukera duzu hitzordurik gabe, lasai eta patxadaz. Bertan ahalduntzerako bestelako baliabideak ere eskaini ahalko dizkizute.

-  Astelehenetik ostiralera 9:30-21:00 eta larunbatetan 9:30-14:00  
Uztailean eta abuztuan: 9:30-14:00

**BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK:** hitzordu bidez

- **Aholkularitza juridikoa**
- **Emakumeen elkar zaintzarako taldea**




## HERNANIKO ZERBITZU SOZIALAK Hernaniko Udala

-  Hitzordua eskatzeko: 943 557 854
-  zerbitzusozialak@hernani.eus
-  Astelehenetik ostiralera 08:00-14:00
-  Sandiusterra, 1

## HERNANIKO UDALTZAINGOA Hernaniko Udala




-  943 248 900
-  Agustindarren Plaza, 6 (1. solairuan)

## HERNANIKO OSASUN ZENTROA

-  943 006 666
-  Aristizabal kalea z/g
-  Astelehenetik ostiralera, 08:00-20:00  
**Larrialdiak:** astelehenetik ostiralera, 17:00-08:00.  
Larunbat, igande eta jaiegunetan 24 orduz

## HERNANIKO ERTZAIN ETXEA

**Salaketa jartzeko/Larrialdi egoeran**

-  943 538 840
-  Latxunbe auzoa, z.g.
-  Egutero 24 orduz

**Genero indarkeria eta familia barruko indarkeria unitatea**

-  Astelehenetik ostiralera 7:00-15:00



# 3. ZEIN DIRA BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK? HERNANITIK KANPO

**Berehalako zerbitzuak, doakoak, konfidentzialak eta anonimoak dira.**

**Gogoratu:**





Hernanitik kanpoko zerbitzuen inguruko informazioa Hernaniko zerbitzuetan ere jaso dezakezu, besteak beste, Kulturarteko Plaza Feministan eta Zerbitzu Sozialetan.

## PROFESIONALEKIN HITZ EGIN NAHI BADUZU

-  900 840 111 (SATEVI) edo 016
-  24 orduko telefono bidezko informazio- eta arreta-zerbitzua eskaintzen dute, eta deiak ez du arrastorik uzten.

## SEXU INDARKERIAREN ARRETA INTEGRALEKO FORU ZERBITZUA

Eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan. 16 urtetik aurrerako emakumeentzat zuzendua, baita euren familiarterko edo ingurukoentzat ere.

-  **Aurrez aurreko arretaren ordutegia:**  
Astelehenetik ostiralera 8:00-20:00 eta larunbatetan 10:00-14:00
-  900 840 188
-  hariberria@gipuzkoa.eus
-  Kale Berri, 10 (Donostia)

## GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA

### Berehalako harrera eta laguntza profesionala

-  943 224 411
-  Astelehenetik igandera 7:00-21:00

**LARRIALDI EGOERETAN** deitu 112 zenbakira (SOS DEIAK). Udaltzaingoa edo Ertzaintza berehala gerturatuko da

Indarkeria egoera bat bizitzen ari bazara hartu lasai tartea eskura ditzun baliabide ezberdinak aztertu eta zuzentzat egokiena izan daitekeela uste duzuna aukeratzeko. Gogoan izan salaketa jarri gabe ere egoera aldatu ahal izateko bide bat egiteko hainbat aukera daudela. Gainera, salaketa jartzekotan ere, aurrez aipatutako baliabide horietan salaketa jartzeko eta horrekin abiatuko den prozesuari aurre egiteko prestatzen lagunduko dizute.

# 4. SALAKETA JARTZEKO NORA JO?

Zuzenean: Ertzaintzara / Epaitegira

## **Salaketa jartzea erabaki baduzu, gogoan izan:**

- Abokaturik ez badaukazu, eskatu indarkeriaren biktima direnentzako ofiziozko txandako abokatu bat (zerbitzu hori doan jasotzeko eskubidea duzu). Salaketa jarri aurretik ere eskura daiteke zerbitzu hori; are gehiago: komenigarria da salaketa abokatuarekin jartzea.
- Ahalik eta xehetasun gehien eman gertatu zaizunaz, eta alde aurretik beste indarkeria egoerarik bizi izan baduzu, azaldu hori ere.
- Frogarik baldin baduzu, eraman: apurtuta dauden gauzak, arropa hautsiak edo odoleztatuak... Inoiz lesiorik izan baduzu, eraman medikuaren txostena. Baita ere mezuak, bideo eta audio grabazioak, testiguen datuak, eta profesional batek artatu bazaitu, haren txostenak.
- Babes Agindua eska dezakezu.
- Sinatu aurretik irakurri eta egiaztatu salaketaren edukia.
- Eskatu salaketa jartzen lagundu dizun profesionalaren identifikazio-zenbakia edo identifikazio-datuak, eta eskatu salaketaren kopia bat.
- Seme-alabarik baldin baduzu, haiek ere indarkeriaren biktima dira. Beraz, babes-neurriak eta bestelako neurriak ere badagozkie.
- Hizkuntza muga den kasuetan, eskubidea duzu doako itzulpen-zerbitzua eskatzeko.
- Adin txikikoa bazara, litekeena da guraso edo/eta tutorearekin joan behar izatea. Kontsulta egin alde aurretik.

# 5. NOLA JOKATU SEXU-ERASO BATEN AURREAN?

Momentuan bertan, **112ra deitu**. Bestela, aurrez azaldutako baliabideetara jo.

## **Garrantzitsua:**

Erasoa gertatu ondoren ez zaituz garbitu, ezta arropaz aldatu ere. Aho bidezko erasorik jasan baduzu, ez jan, ezta edan ere, erasotzailea identifikatzeko funtsezko frogak ezaba daitezke eta.

Osasun-zerbitzuetara joaten bazara, eskatu medikuak egindako txostenaren kopia bat.

# 6. NOLA LAGUNDU INDARKERIA BIZITZEN ARI DEN EMAKUME BATI?

- Entzun, eta ez zalantzan jarri kontatzen dizuna, saia zaitetz bizitzen ari den arazoaren garrantzia ulertzen.
- Saia zaitetz ez dadin isolatu, kontaktua mantendu eta senitarteko edo/eta lagunengandik gertu dagoela bermatzen saiatu.
- Laguntza eskainitakoan onartzen ez badu ere, ez pentsatu zure laguntza behar ez duenik. Prest dagoenean eskatuko dizu, eta oso garrantzitsua izango da berak jakitea zu laguntzeko prest zaudela.
- Ez laguntzarik eman erasotzaileari.
- Saia zaitetz emakumeari ulertarazten egoera hori ez duela berak eragin eta ez dagoela indarkeria justifikatzeko arrazoirik.
- Eman informazioa profesional egokiekin harremanetan jartzeko. Ahal baduzu, lagundu zerbitzu horietako batera.
- Emakumearen segurtasuna edo bizitza arriskuan ikusiz gero, deitu Larrialdietara (112 telefonora). Zerbitzu horietan zure informazioa beti konfidentzialtasun osoz kudeatuko dute.
- Ez badakizu zer egin 900 840 111 (SATEVI) telefonora deitu dezakezu, bertan dauden profesionalak informazioa emango dizute kasu konkretu honen inguruan. Aurrez aipatutako beste baliabideetara ere jo dezakezu informazio eske.